

IRAILAK
30

III. Hernaniko Liburu eta Disko Azoka

Dobera Euskara Elkarte

- 11:00** Azokaren irekiera.
“*Arpa magikoa*” ipuin kontaketa musikatua.
Ane Artetxe, Amaia Irazabal eta Amaia Ruiz de Galarretaren eskutik.
- 12:00** Liburu aurkezpenak:
· “*Ilargia eta landareak 2024*”. Jagoba Errekondo. Argia
· “*Euskara orain - eraginkortasuna helburu*”.
Mikel Mendizabal. Alberdania
- 13:30** Diskoaren aurkezpena: *Bitartean folk taldea*
- 17:00** Diskoaren aurkezpena: “*Esan galtzerdi maitea!*”.
Zapotxin
- 17:30** Liburu aurkezpenak:
· “*Gora euskal herrientsak!*”. Asisko Umeneta.
Herrima Argitalpenak
- 18:00** Bertso saio literarioa: Oihana Arana idazlearekin eta Maddi Ane Txoperena eta Maialen Akizu bertsolariekin.
- 18:45** Liburu aurkezpenak:
· “*Oso latza izan da*”. Xabier Mendiguren. Elkar
- 19:15** Diskoaren aurkezpena: *Karena*.
Azokaren itxiera.



11:00-14:30 / 17:00-19:30

ATSEGINDEGIN

Liburu Azokan 14 postutik gora egongo dira ikusgai. Sarrera doan.

* *Azokak iraun bitartean*, etxeko txikiek *Haur Txokoaz* gozatzeko aukera izango dute!


URRIAK
01

Poemolly: ludopoesia saio bat Kale-literatura taldea

JOLAS PARTE HARTZAILEA

12:00
BITERI AURREAN

Itziar Ugarteren *Gu gabe ere* poesia liburua oinarri hartuta, jolas parte hartzailea. Kolore adina talde, taldekide guztiak irakurtzea da helburua. Dadoa bota eta kasila batera erortzean, dagokion taldekideak poema bat irakurri beharko du. Aurretik berak aukeratutakoa, ala ausaz egokituko zaiona. Poemaz gain, kasila bakoitzean literaturarekin lotutako galdera bat erantzun beharko dute jokalariek.



@hernanikultura

@libhernani

liburutegia.hernani.eus

@DoberaElk
dobera@dobera.eus

kulturaz gozatu, elkar zaindu!

Hitz- andana

HITZAREN INGURUKO JAIALDIA

Istorio ezberdinak, kontatuak, kantatuak, antzeztuak, errezitatuak. Baita inprobisatuak eta musikaz lagunduak ere.

2023 | irailak 27 | urriak 1

IRAILAK
27

Mare ilargiari poemak

ERREZITALDI MUSIKATUA

1545 argitaletxearen *Mare* liburuaren errezitaldi musikatua izango da. Jon Martinek gidatuko du emanaldia, eta izen bereko liburuan parte hartu duten hainbat idazlek eta Hernaniko ikasle gazteek poemak irakurriko dituzte Edurne Saizar musikariak lagunduta. Ilargiari begira jarri nahi ditugu irakurle gazteak, baita ilargiaren alde ezkutuari ere, Lurretik ikusten ez den horri.

Testuak: Harkaitz Cano, Itxaro Borda, Asier Serrano, Jose Luis Otamendi eta herriko gazteak.

Pianoa: Edurne Saizar

Irudiak: Udane Ansa

Aurkezlea: Jon Martin



19:00
BITERI KULTUR ETXEA
Sarrera librea

Gonbidapenak:
Biteri kultur etxean edo kultura.hernani.eus
webgunean, Irailaren 20tik aurrera

Tabuen kutxatik oholtzara

Iñurri minbiziaren aurkako elkarte

BERTSO SAIO MUSIKATUA

Inurri elkartearen eskutik, minbizia modu batera edo bestera jasatea tokatu zaienei laguntzeko eta gizartea sentsibilizatzeko “Tabuen Kutxatik Oholtzara” proiektu solidarioa martxan jarri dugu, gertutik bizitako esperientzien harira.

Bularreko minbiziari lotutako estereotipoak gainditzeko ekarpen xume bat egin nahi genuke, gure esperientzia, ahotsa eta gorputza plazaratzuz; bide batez esanda urteetan ukatu zaion presentzia eta espazioa eskainiz, eta sortzen dituen emozioak azaleraziz; batzuetan serio, bestetan umorez, minbizitik bizimenera.

Bertsolariak: Alaia Martin, Maialen Akizu, Oihana Iguaran eta Onintza Enbeita

Musikariak: Gari Otamendi eta Ixak Arruti

Gai-jartzailea: Amaia Agirre



IRAILAK
28

19:00
BITERI KULTUR ETXEA

Sarrerak: 8 €
Biteri kultur etxean edo kultura.hernani.eus
webgunean, Irailaren 20tik aurrera
(Sarreraren salmentatik lortutako etekinak Iñurri elkartearentzat bideratuko dira bere osotasunean)



GenErorAntz Kimua dantza kolektiboa

DANTZA ETA HITZA

Genero-ikuspegiaren inguruko lanketa, originala bezain berritzailea den emanaldia proposatzen du Kimua Dantza Kolektiboak. Dantza, gorputz mugimendua, interpretazioa eta ikus-entzunezkoek gidatuta, GENERO ikuspegia ardatz hartuta, eremu eta arlo ezberdinak kontuan hartuz, ditugun lotura, motxila eta kateen inguruko hausnarketa egiteko parada izango dugu.

Egilea: Kimua DK

Zuzendaritza artistikoa: Kepa Errasti Gorroño

Testua: Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena

IRAILAK
29

19:30
BITERI KULTUR ETXEA

Sarrerak: 8 €
Biteri kultur etxean edo kultura.hernani.eus
webgunean, Irailaren 20tik aurrera